

Amets Irastorza Ezkiaga

D maila • 2 saria

Kaixo! Amets Irastorza naiz.

Hamalau urte bete berri ditut eta La Salle ikastetxean ari naiz ikasten DBH 2. Asko poztu nau bertsoetan aurten jaso dudan bigarren sariak. Ez ditugu ez garai errazak azken aldian. Datorrenari eutsi behar hala ere! Ea hurrengo urteko idazlehiaketa ekitaldian izurritea aipatu ere egiten ez dugun! Denok osasuntsu eta pozik gaudelaren seinale izango da hori! Bitartean, zaindu! Eskerrik asko eta hurrengora arte!



Doinua: Aita Jainkuak egin banindu

GALERAK GALERA

Irribarreak galduak dira
musukuen erreinuan,
denak triste bizi garela
sumatzen dut nik barruan,
kale inguruan,
bazkalburuan,
penak ditugu buruan.
Izurriteak indarrez jo du
gure gizarte erotuan.

Lagunekin ezin dugu elkartu,
horrek ematen du lana.
Guztion artean saiatuta
egiten da auzolana.
Albokoengana
joan ezin bada,
egin beharko dugu hala.
Bestelakoan birus alu hau
dator gu guztiongana.

BERTSOAK

Halare nik uste dut behintzat
bururik ez da galdu behar,
datuen saltsan hainbat egia
dago ziur argitzear.
Ateratzear,
beti galtzear...
Horrek azkena balekar...
Etsitasunak egunez egun
gauzka ero bihurtzear.

Hau ere bukatuko da eta,
eutsiko diogu elkarri.
Bizitzak jarraitu behar du ta,
ukatu ezina noski.
Abesteari,
dantzatzeari,
maite ditugunei irri
egiten segitu zazue ta
animo asko deneri!